



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Ainhoa Mindeguia Santesteban
Pedro Hilario Santesteban Loyarte

2026ko maiatzaren 4an, 8:00tan, ohiko biltzarrean elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Domínguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AGERRALDIAREN AKTEN ESKRITURA IZENPETZEKO ERABAKIA ETA ALKATEARI SINATZEKO AHALMENA EMATEA, 38718A ESPEDIENTEA.

Zubietan, biltegi baten beharra aurreikusi zen (4.poligonoko 1140.lurzatia) eta Chocarro y Urmeneta udal arkitektuek “Basoaren mantenimendurako makinaria gordetzeko udal biltegia” memoria teknikoa egin zuten.

Lurralde Antolamendurako Zuzendaritza Nagusiaren ebazpena 155E/2026 apirilaren 7koa udal biltegia egitea baimendu zuen.

Kantauriko Konfederazio Hidrografikoari baimena eskatu zen eta errekerimendua bidali zuen, erantzukizunpeko adierazpena eta Jabetza erregistroaren ziurtagiria, eraikuntza edo lurzattia urpean gera daitekeen eremua dagoela adierazten duen erregistroko idazpenarekin.

Jabetza erregistroko ziurtagiria lortzeko, notaritzan “Acta de manifestaciones” egin behar da jabetza erregistrora eramateko.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Alkateari sinatzeko botere ematea, Notaritzan egin beharreko 4.poligonoko 1140.lurzattia urpean gera daitekeen eremua dagoela adierazten duen “Acta de manifestaciones” sinatzeko.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

Eta bertzerik ezean, 08:15ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.